

1967 - 6 - 6

Mendiakal, Fernando

Enen benetako Jauna, Agur.

Atzo bidali nizun, zurekin dagoan ~~apiaz~~ Jaunarekin nere euskal-gramatika lana. Or ikusiko duzu zemuz dagoan. Nere asmoak aletuko dizkizut orain piska bat, eta gaiñerakoen berri lanak berak emango dizu. Leenengo esan bear dizut, ori ez dala gramatika osoa, ez euskera osoarena eta ez giputzerarena ere. Ori oiñarrikko mailla edo aurreneko mailla bat besterik ez da. Beraz or egiten dana da gramatika-gauzak aletu eta ezagutuarazten lagundu umeari. Orregatik ez naiz sartzen syntaxian axaletik besterik. Estaduaren kuestionariotan ere ori jartzen dute gutxi gora-bera ikasgaitzat, aurreneko batxiller-urtean. Eta nik ori artu dut asmotzat.

Zenbait gauza, umetxoentzako espezializatuegi iruditu zaizkidanak, ez ditut jarri, aditzean batez ere. Esate baterako, Etorri banadi, etorri banendi; ekarri badezat, ekarri baneza. Alako aditzaldi banaka batzutan besterik ez baidira erabiltzen eta oiek ere naiko gutxi; erabat iltzeaz daudela esango nuke, eta oien orde besterik batzuk erabiltzen diran ezkerero, oiek baztarrema uztea erabaki dut beste goragoko mailla batean aditzera emateko. Jokabide soilleko⁽¹⁾ aditzak ere iru aditz-arátan bestetan ez ditut erabili: ~~Presente berria eta~~ Indikatibuko Presente berria eta Presente zaarrean (edo, imperfektuan), eta gerondizio-keran. Gaiñerako aditzaroak oso gutxi edo batera erabiltzen ez diranak baidira, goragoko mailla baterako utzi ditut.

Ez dakit zer eritziko ote diozun, nik aditz-gora-beretan erabili dudana terminolojiari, eta gaiñerako gramatika-terminolojiari. Naiko Janik izen dut oietako zenbaitekin; baiña nere ustez umeek ulertzeko moduan utzi ditudalakoan

⁽¹⁾ konjugazio sintetikua da.

nago. Gaiñera, eskola aldetik, ez da aaztu bear, oraindik gure umeek oso gauza gutxi erabiltzen dituztela IZKI kontutan esate baterako, eta gure Azkue aundiak nai zuken bezelako ~~libroa~~ aberastasunik ezin ditekela oraindik eman. Orregatik umeek ezagutzen dutenetik ezagutzen ez dutenera eramatea iruditu zait egokiena. Ontaz ez noakizu geiago ezer esatera, zeuk ikusiren duzu begi begiz eta nere itzok sobra dira.

Gaiñera au ere esan nai nizuke. Aspaldidenik izan nuan kezka aurreneko esq kolatik, deklinazioan, eta gaiñerako gramatika-gauzatan, beste euskalkietako gramatika-gauzarik nabarmenenak ere ezagutu arazteko. Oni dala-ta, deklinazioan ta aditzean-ta jarri ditut zenbait gauzatxo, nere ustez oso ezagun~~a~~ diranak, beste euskalkietatik artuta. Bizkaierakoak zeozer ezagutzen ditut eta sartu ditut; zuen aldekorik ez dut geiegirik ezagutzen eta batzutan, sartu izan ditudan~~a~~ arren, bildur naiz beste zeozer ere sartu ote ditekén, umeek ulertzeko zaillegi ez danik. Ontaz zeozer bururatzen baldin bazaizu, zuen alde ortan sarri ere sarri erabilli bearrekoak dirala, (eta bide batez, beste euskaldunok ere ezagutu bearrekoak, orko idazleen lanak irakurtzen ditugunean), esaidazu oietako zeozer eta aleginduko naiz sartzeko moduak egiten; beti ordea, gauza geiegi sartu-naiez, umeentzako zaillegi egin gabe: ori da beti ere irakaspenaren xedea-ta.

Makiña estropeatu zitzaigun eta ez nuan leengo egunean lan osoa bialtzerik izan. Aditzaren sailla falta da, baiña berandu gabe or izango duzulakoan nago. Gaiñera bear bada ez da zati au premirik eta garrantzirik aundienekoa; ba paradignak A. Intrausti^lk argitaratu zituan bezela agertu ditut nik ere; beste modu batera izatea, guztia, eta leen esan dizudan bezela zenbait aditzaldi kenduaz.

Or ez dizkizut bialdu, baiña gramatika orrek ba ditu saiaketak eta ejerzizioak, eta irakurtzeko kontuak eta gaiñerako ~~kontuak~~ euskal-kanta ta abar

SANTUARIO DE ARANZAZU

Teléfono: 7-81-72

O Ñ A T E (Guipúzcoa)

ere berekin. Oiek ez dizkizut bialdu, batetik kopiatzeko dāuzka-
dalsko eta bestetik zuri lan geiegirik ez emateagatik; leendik
ere naikoa duzu orrekin-eta.

Nere asmoa, edo obeto esan gogoa, datorren kursorako ateratzea litzake.
Ikusten dut naiko lanik izan bear dudala; baiña nai nuke beintzat aalik eta
azkarrena atera, asiera asieratik ez bada ere, asiera xamarretik beintzat eus-
kal-eskoletan-ta ikas-liburutzat eukitzeko modua egin dedin. Jakin ere egingo
baiduzu, eske ta eske dagoala jendea.

Milla esker zure Euskal-gramatikari. Amaika argitasun eman dit nere lan
ontan. Eta besterik ezer ez. Gaiñerakoak zeuk ikusiko dituzu eta naiko jakintsu
zera zeu nik esanda baiño ere obekiago orko gauzen berri jakiteko. Agurterdi.
Millesker.

Zure betiko

A. Fernando Mendizabal

SANTUARIO DE ARANZAZU

Teléfono: 7-81-72

OÑATE (Guipúzcoa)

26 - 10 - 1967

Ñere benetakoa Janna:

Artu dut zure karta, eta mila
eskerori dana irakurtzeko artu duzun lanegatik.

Eskerrik asko gainera zure eskutituan ematen dirka-
dakun kontseju onegatik; eta goresperezagatik ere
bai, orren esku apartekoetatik artutako lekuk usai
gorroga baidute, eta eragin ere bane baretik
eragiten baidute aurrera jarraitzeko lan gozo
ostan.

Orain naiko buruanste izango dut li.

lurru kostor ori argitaratzen. Jainkoak la-
gunduko al dit gure euskaldun munti-
koen eta euskeraren onera ko zereer tafusko-
rik egiten.

Snilla esker berriz ere eta agur terdi.

A Fernando Mendizabalak